

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 51/2020 Erabakia, otsailaren 4koa. Baimena ematea zenbait truke egiteko Lezamako Administrazio Batzarraren eta Lezamako herriaren "Ladera de Lezama" izeneko onura publikoko 66 mendia osatzen duten lurzatiaren zenbait jabe partikularren artean

Mendi Zerbitzuak adierazi du Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Nagusian 2018ko irailaren 6an 11.482. sarrera zenbakiarekin aurkeztu zen idazkiaren bitartez, Lezamako Administrazio Batzordeko presidentek, Javier Zubizarreta Ugartek, eskatu zuela Lezamako Administrazio Batzordearen eta Eugenio Abasolo Landazuri, Juan Jose Aldama Ibarrola, Luis Aldama Zulueta eta Jose Maria Alday Zubizarreta jabe partikularren artean egindako ondasun trukatzeei buruzko berrikuspena eta txostena egiteko. Trukatuko diren lurzatiak "Lezamako mendi hegala" izeneko 66. erabilera publikoko mendiaren barne daude, Lezaman.

Hauxe da trukatzeko bakoitzaren azterketa. Horiei buruzko laburpen koadroa eranskinean jasota dago:

1. TRUKATZEA: Eugenio Abasolo Landazuriren mendiekin egindako trukatzeko.

Eugenio Abasolo Landazurik bere jabetzaren barne dauden baso finka hauek eskaini ditu trukatu daitezkeen:

Landa finka Amurrion. "El Ordo de Chara de Haya" mugartean dagoen mendia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 1.081. liburukian, 47. liburuan, 899. finka zenbakiaz. Katastro erreferentzia hauxe da: 6. esparrua, 78. lurzatia.

Landa finka Amurrion. h) eranskina. "Tunel Chiquito" mugartean dagoen mendia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 376. liburukian, 17. liburuan, 1.084 finka zenbakiaz. Hauxe da katastro erreferentzia: 6. esparrua, 221. lurzatia.

Landa finka Amurrion. g) eranskina. "El Bordo" mugartean dagoen mendia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 376. liburukian, 17. liburuan, 1.084. finka zenbakiaz. Hauxe da katastro erreferentzia: 8. esparrua, 135. lurzatia.

Lezamako Administrazio Batzordeak hauxe eskaintzen du trukean:

Amurrion kokatutako landa finka baten zatia. 66. zenbakidun "Lezamako mendi-hegala" erabilera publikoko mendia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 423. liburukian, 23. liburuan, 1.605. finka zenbakiaz. Hauxe da katastro erreferentzia: 6. esparrua, 160. lurz- zatia (zati bat).

Lezamako Administrazio Batzordeak trukatzeko espedienteak hasi zuen Administrazio Batzorde horrek eta Eugenio Abasolo Landazurik aurkeztutako jabetza dokumentuekin, eta honi buruzko administrazio adostasun eskaria egin zen:

Amurrioko 6. esparruko 160. katastro lurzatiaren zati bat banatzea; gaur egun 66. erabilera publikoko mendiaren barne dago, eta ondoren finka berria egingo da, esleitzeko dagoen katastro erreferentzia izango duena, eta Eugenio Abasolo Landazuriri emango zaiona.

Amurrioko 6. esparruko 78. katastro lurzatia 66. erabilera publikoko mendiaren barne sartzea.

Amurrioko 6. esparruko 221. katastro lurzatia 66. erabilera publikoko mendiaren barne sartzea.

Amurrioko 8. esparruko 135. katastro lurzatia 66. erabilera publikoko mendiaren barne sartzea.

Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza zuzendariak aldeko txostena eman zuen administrazio adostasunari buruz 2016ko otsailaren 18an (espediente bakarra, zenbaki honekin: 20.375/2016).

Espedientea betez, Lezamako Administrazio Batzordeak Aialur SL enpresari enkargatu zion trukatzeko ondasunen balorazioaren txosten teknikoa egitea; David Guinea Aldama eta Jon Ander Navarro Martin jaunek sinatutako 2016ko urtarrileko txostenaren izenburua "Lezamako Administrazio Batzordeak eta Eugenio Abasolo Landazurik lursailak trukatzeko egindako txostena" da.

Txosten tekniko horretako peritu balorazioarekin bat eginez, Lezamako Administrazio Batzordeak lursailen 10.000,00 m² emango ditu. Horien balioa 8.874,71 eurokoa da, hegalak eta lurzorua barne. Eugenio Abasolo Landazurik 17.603,58 m² eman zituen 8.874,71 euroko balioarekin, hegalak eta lurzorua barne.

Ondorioz, parekidetasuna dago trukatzeko diren ondasunen balioaren artean.

2. TRUKATZEA: Juan Jose Aldama Ibarrolaren jabetzako mendiekin egindako trukatzea.

Juan Jose Aldama Ibarrolak bere jabetzaren barne dauden baso finka hauek eskaini ditu trukatu daitezen:

Landa finka Amurrión. "La Rede mugartean kokatutako zedarritutako mendia": Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 652. liburukian, 30. liburuan, 2.395. finka zenbakiaz. Hauxe da katastro erreferentzia: 7. esparrua, 135. lurzatia eta 8. eremua, 140. lurzatia.

Amurrión kokatutako landa finka baten zatia. "Orzales-en dagoen zedarritutako eremuaren" 15. eranskina. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 423. liburukian, 23. liburuan, 1.708. finka zenbakiaz. Hauxe da katastro erreferentzia: 7. esparrua, 649. lurzatia (zati bat).

Lezamako Administrazio Batzordeak hauxe eskaintzen du trukean:

Amurrión kokatutako landa finka baten bi zati. 66. zenbakidun "Lezamako mendi-hegala" erabilera publikoko mendia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 423. liburukian, 23. liburuan, 1.605. finka zenbakiaz. Bi zatiek hurrenez hurren katastro erreferentzia hauek dituzte: 7. esparrua, 130. lurzatia eta 694. lurzatia (zati bat) katastro erreferentzia honekin: 7. esparrua, 134. lurzatia (zati bat).

Lezamako Administrazio Batzordeak trukatzeko espedientea hasi zuen Administrazio Batzorde horrek eta Juan Jose Aldama Ibarrolak aurkeztutako jabetza dokumentuekin, eta honi buruzko administrazio adostasun eskaria egin zen:

Banaketa 134. katastro lurzatian hasiko da, Amurrioko 7. esparruan. Gaur egun 66. erabilera publikoko mendiaren barne dago, eta ondoren, sortuko diren bi eremuak emango dira. Horietan finkek kokatuko dira, oraindik esleitzeko dauden katastro erreferentziekin. Hala, horiek partikular ezberdinei emango zaizkie, eta horietako bat Juan Jose Aldama Ibarrola izango da.

Amurrioko 7. esparruko 649. katastro lurzatiaren zati bat banatzea eta ondoren, 66. erabilera publikoko mendiaren barne sartzea.

Amurrioko 7. esparruko 694. katastro lurzatiaren zati bat banatzea eta ondoren, Amurrioko 66. 7. esparruko 130. katastro lurzatiaren barne sartzea. Hala, finka berri bat sortuko da eta Juan Jose Aldama Ibarrolari emango zaio.

Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza zuzendariak aldeko txostena eman zuen administrazio adostasunari buruz 2016ko otsailaren 25ean (espediente bakarra, zenbaki honekin: 23.283/2016).

Espedientea betez, Lezamako Administrazio Batzordeak Aialur SL enpresari enkargatu zion trukatzeko ondasunen balorazioaren txosten teknikoa egitea; David Guinea Aldama eta Jon Ander Navarro Martin jaunek sinatutako 2016ko urtarrileko txostenaren izenburua "Lezamako Administrazio Batzordeak eta Juan Jose Aldama Ibarrolak lursailak trukatzeko egindako txostena" da.

Txosten tekniko horretako peritu balorazioarekin bat eginez, Lezamako Administrazio Batzordeak lursailen 30.172,86 m² emango ditu. Horien balioa 26.478,87 eurokoa da, hegalak eta lurzorua barne. Juan Jose Aldama Ibarrolak 57.211,29 m² eman ditu 26.478,87 euroko balioarekin, hegalak eta lurzorua barne.

Ondorioz, parekidetasuna dago trukatu diren ondasunen balioaren artean.

3. TRUKATZEA: Luis Aldama Zulueta mendiekin egindako trukatea.

Luis Aldama Zulueta bere jabetzaren barne dauden baso finka hauek eskaini ditu trukatu daitezkeen:

Landa finka Amurrion. "Zedarritutako mendia "Larrede" mugartean, "Longaraiko mugartean dagoen etxea, 7. zenbakiduna" finkaren barne dagoena. Katastro erreferentzia hau da: 7. esparrua, 131. lur-zatia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 401. liburukian, 21. liburuan, 337. finka zenbakiaz.

Landa finka Amurrion. "Zedarritutako mendia "Mendiostre" mugartean, "Longaraiko mugartean dagoen etxea, 7. zenbakia duena" finkaren barne dagoena. Katastro erreferentzia hau da: 7. esparrua, 132. lur-zatia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 401. liburukian, 21. liburuan, 337. finka zenbakiaz.

Lezamako Administrazio Batzordeak hau eskaintzen du trukean:

Amurrion kokatutako landa finka baten zatia. 66. zenbakidun "Lezamako mendi-hegala" erabilera publikoko mendia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 423. liburukian, 23. liburuan, 1.605. finka zenbakiaz. Hau da katastro erreferentzia: 7. esparrua, 134. lur-zatia (zati bat).

Lezamako Administrazio Batzordeak trukatzeko espedientea hasi zuen Administrazio Batzorde horrek eta Luis Aldama Zulueta aurkeztutako jabetza dokumentuekin, eta honi buruzko administrazio adostasun eskaria egin zen:

Banaketa 134. katastro lur-zatian hasiko da, Amurrioko 7. esparruan. Gaur egun 66. erabilera publikoko mendiaren barne dago, eta ondoren, sortuko diren bi eremuak emango dira. Horietan finkak kokatuko dira, oraindik esleitzeko dauden katastro erreferentziekin. Hala, horiek partikular ezberdinei emango zaizkie, eta horietako bat Luis Aldama Zulueta izango da.

Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza zuzendariak aldeko txostena eman zuen administrazio adostasunari buruz 2016ko otsailaren 25ean (espediente bakarra, zenbaki honekin: 23.283/2016).

Espedientea betez, Lezamako Administrazio Batzordeak Aialur SL enpresari enkargatu zion trukatzeko ondasunen balorazioaren txosten teknikoa egitea; David Guinea Aldama eta Jon Ander Navarro Martin jaunek sinatutako 2016ko martxo txostenaren izenburua "Lezamako Administrazio Batzordeak eta Luis Aldama Zulueta lursailak trukatzeko egindako txostena" da.

Txosten tekniko horretako peritu balorazioarekin bat eginez, Lezamako Administrazio Batzordeak lursailen 15.079,58 m² emango ditu. Horien balioa 11.771,79 eurokoa da, hegalak eta lurzorua barne. Luis Aldama Zulueta 29.038,90 m² eman zituen 11.771,79 euroko balioarekin, hegalak eta lurzorua barne.

Ondorioz, parekidetasuna dago trukatu diren ondasunen balioaren artean.

4. TRUKATZEA: Jose M^a Alday Zubizarretaren jabetzako mendiekin egindako trukatzea.

Jose M^a Alday Zubizarretak bere jabetzaren barne dauden baso finka hauek eskaini ditu trukatu daitezen:

Landa finka Amurrion. IX. eranskina: "Elordon" dagoen beste mendi bat. Katastro erreferentzia hauxe da: 8. esparrua, 137. lurzatia eta 6. esparrua, 122. lurzatia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 374. liburukian, 18. liburuan, 57. finka zenbakiaz.

Landa finka Amurrion. Ajanzan dagoen mendia. Katastro erreferentzia: 5. esparrua, 191. lurzatia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 530. liburukian, 27. liburuan, 2.095. finka zenbakiaz.

Landa finka Amurrion. Ajanzan dagoen mendia. Katastro erreferentzia: 5. esparrua, 192. lurzatia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 530. liburukian, 27. liburuan, 2.095. finka zenbakiaz.

Lezamako Administrazio Batzordeak hauxe eskaintzen du trukean:

Amurrion kokatutako landa finka baten bi zati. 66. zenbakidun "Lezamako mendi-hegala" erabilera publikoko mendia. Amurrioko jabetza erregistroan inskribatua, 423. liburukian, 23. liburuan, 1.605. finka zenbakiaz. Bi zatiek hurrenez hurren katastro erreferentzia hauek dituzte: 5. esparrua, 216. lurzatia (zati bat), katastro erreferentzia honekin: 5. esparrua, 215. lurzatia (zati bat).

Lezamako Administrazio Batzordeak trukatzeko espedientea hasi zuen Administrazio Batzorde horrek eta Jose M^a Alday Zubizarretak aurkeztutako jabetza dokumentuekin, eta honi buruzko administrazio adostasun eskaria egin zen:

Amurrioko 5. esparruko 191. katastro lurzatia 66. erabilera publikoko mendiaren barne sartzea; gaur egungo katastro erreferentzia desagertu egingo da.

Amurrioko 5. esparruko 215. katastro lurzatiaren zati bat banatzea; gaur egun 66. erabilera publikoko basoaren barne dago, eta ondoren finka berria egingo da, esleitzeko dagoen katastro erreferentzia izango duena, eta Jose M^a Alday Zubizarretari emango zaiona.

Amurrioko 5. esparruko 216. katastro lurzatiaren zati bat banatzea; gaur egun 66. erabilera publikoko basoaren barne dago, eta ondoren finka berria egingo da, esleitzeko dagoen katastro erreferentzia izango duena, eta Jose M^a Alday Zubizarretari emango zaiona.

Amurrioko 5. esparruko 192. katastro lurzatia 66. erabilera publikoko mendiaren barne sartzea; gaur egungo katastro erreferentzia desagertu egingo da.

Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza zuzendariak aldeko txostena eman zuen administrazio adostasunari buruz 2014ko abenduaren 17an (espediente bakarra, zenbaki honekin: 142.437/2014).

Espedientea betez, Lezamako Administrazio Batzordeak Aialur SL enpresari enkargatu zion trukatzeko ondasunen balorazioaren txosten tekniko egitea; David Guinea Aldama eta Jon Ander Navarro Martin jaunek sinatutako 2013ko azaroko txostenaren izenburua "Lezamako Administrazio Batzordeak eta Jose M^a Alday Zubizarretak lursailak trukatzeko egindako txostena" da.

Txosten tekniko horretako peritu balorazioarekin bat eginez, Lezamako Administrazio Batzordeak lursailen 21.315,60 m² emango ditu. Horien balioa 13.037,73 eurokoa da, hegalak eta lurzorua barne. Jose M^a Alday Zubizarretak 21.670,17 m² eman ditu 13.037,20 euroko balioarekin, hegalak eta lurzorua barne.

Ondorioz, parekidetasuna dago trukatu diren ondasunen balioaren artean.

Txosten tekniko horretan jasotakoarekin bat eginez, trukatzeko horiek egitean alderdi guztiek onurak jasoko dituzte, izan ere, finka pribatuak "Lezamako mendi hegala" izeneko 66. erabilera publikoko mendiaren barne sartzean, zuhaitzez betetako azalera gehitu egingo da, eta

aldaketaren ondoren esparru itxiak egongo dira eta horrek erraztu egingo du basoko lanak egitea, eta ondorioz, mendiaren kudeaketa ere erraztu egingo da. Bestalde, konpondu egingo da 66. zenbakidun erabilera publikoko mendia mugatzean lur-zati partikularrak berriz ere banatzean sortutako arazoa.

Horregatik guztiagatik, eta uztailaren 20ko 21/2015 Legeak, mendienak, 16.4. eta 17. artikuluetan eta martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak, mendienak, 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Nekazaritza Saileko foru diputatuaren proposamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Akordio honen azalpen atalean aztertutako trukatzek baimentzea. Trukatze horiek Lezamako Administrazio Batzordeak egin zituen eta 66. "Lezamako mendi hegala" erabilera publikoko mendiaren zenbait lur-zatiri dagokienez egin dira. Horien jabetza eta laburpena erantsitako eranskinean jasota daude.

Bigarrena. Erabilera publikoaren jaregitea agintzea eta Lezamako 66. zenbakidun "Lezamako mendi hegala" erabilera publikoko mendiaren 10.000,00 m² erabilera publikoko Mendien Katalogotik kentzea -160. lurzatikoak (zati bat), Amurrioko Landa Katastroko 6. esparrukoak-. Horren helburua jabetza partikularreko beste lurzati batzuekin trukatzea da zuhaitzez betetako azalera gehitzeko eta baso kudeaketa errazteko. Hala, Lezamako Administrazio Batzordearen erabilera publikoko mendiak hobetu egingo dira.

Hirugarrena. Erabilera publikoaren jaregitea agintzea eta Lezamako herriaren 66. zenbakidun "Lezamako mendi hegala" erabilera publikoko mendiaren 30.173,88 m² erabilera publikoko Mendien Katalogotik kentzea 130., 694 (zati bat) eta 134. (zati bat) lurzatiekoak, Amurrioko Landa Katastroko 7. esparrukoak. Horren helburua jabetza partikularreko beste lurzati batzuekin trukatzea da zuhaitzez betetako azalera gehitzeko eta baso kudeaketa errazteko. Hala, Lezamako Administrazio Batzordearen erabilera publikoko mendiak hobetu egingo dira.

Laugarrena. Erabilera publikoaren jaregitea agintzea eta Lezamako 66. zenbakidun "Lezamako mendi hegala" erabilera publikoko mendiaren 15.079,58 m² erabilera publikoko Mendien Katalogotik kentzea -134. lurzatikoak (zati bat) eta Amurrioko Landa Katastroko 7. esparrukoak-. Horren helburua jabetza partikularreko beste lurzati batzuekin trukatzea da zuhaitzez betetako azalera gehitzeko eta baso kudeaketa errazteko. Hala, Lezamako Administrazio Batzordearen erabilera publikoko mendiak hobetu egingo dira.

Bosgarrena. Erabilera publikoaren jaregitea agintzea eta Lezamako 66. zenbakidun "Lezamako mendi hegala" erabilera publikoko mendiaren 21.315,60 m² erabilera publikoko Mendien Katalogotik kentzea -216. (zati bat) eta 215. (zati bat) lurzatiekoak, Amurrioko Landa Katastroko 5. esparrukoak-. Horren helburua jabetza partikularreko beste lurzati batzuekin trukatzea da zuhaitzez betetako azalera gehitzeko eta baso kudeaketa errazteko. Hala, Lezamako Administrazio Batzordearen erabilera publikoko mendiak hobetu egingo dira.

Seigarrena. Erabilera publikoa aitortzea eta Mendien Katalogoan sartzea "Lezamako mendi-hegala" 66. mendia, 17.603,58 m²-ko azalera duena, 6. esparruko 78. eta 221. lurzatiekoa eta 8. esparruko 135. lurzatiekoa, Amurrioko Landa Katastrokoa eta aurretik jabetza partikularra izan zena.

Zazpigarrena. Erabilera publikoa aitortzea eta Mendien Katalogoan sartzea "Lezamako mendi-hegala" 66. mendia, 57.211,29 m²-ko azalera duena, 7. esparruko 135. eta 649. (zati bat) lurzatiekoa eta 8. esparruko 140. lurzatiekoa, Amurrioko Landa Katastrokoa eta aurretik jabetza partikularra izan zena.

Zortzigarrena. Erabilera publikoa aitortzea eta Mendien Katalogoan sartzea "Lezamako mendi-hegala" 66. mendia, 29.037,89 m²-ko azalera duena, 7. esparruko 131. eta 132. lurzatietakoa, Amurrioko Landa Katastrokoa eta aurretik jabetza partikularra izan zena.

Bederatzigarrena. Erabilera publikoa aitortzea eta Mendien Katalogoan sartzea "Lezamako mendi-hegala" 66. mendia, 21.670,17 m²-ko azalera duena, 5. esparruko 191. eta 192. lurzatietakoa, 6. esparruko 122. lurzatikoa eta 8. esparruko 137. lurzatikoa, Amurrioko Landa Katastrokoa eta aurretik jabetza partikularra izan zena.

Hamargarrena. Erabilera publikoko jaregiteei baldintzak ezartzea, Mendien Katalogotik kentzea eta lurzati pribatuak erabilera publikoari lotzea eta ondorioz erabilera publikoko Mendien Katalogoan sartzea, egindako trukatzek gauzatzen direnean. Horretarako, Lezamako Administrazio Batzordeak egoki iritzitako epean aurkeztu beharko ditu eskritura publikoak, egin beharreko oharrak egiteko Mendien Katalogoan.

Hamaikagarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratu beharko dela adieraztea.

Gasteiz, 2020ko otsailaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCION QUINTANA URIARTE

ERANSKINA

LEZAMAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEAK ETA ZENBAIT JABE
PARTIKULARREK EGINDAKO TRUKATZEEN LABURPEN KOADROA.
TRUKATUTAKO LURZATIAK 66. ZENBAKIDUN "LEZAMAKO MENDI-
HEGALA" ERABILERA PUBLIKOKO MENDIAREN ZATI DIRA

Hauak dira egindako lau trukatzeen datuak:

1. trukatzea

INTERESDUNA	EMANDAKO LURZATIAK	AZALERA, M ²	BALORAZIOA EUROTAN	JASOTAKO LURZATIAK	AZALERA, M ²	BALORAZIOA EUROTAN
Lezamako AB	6/160 (zati bat)	10.000,00	8.874,74	6/78 6/221 8/135	7.512,97 3.914,61 <u>6.176,00</u> 17.603,58	8.874,74
Eugenio Abasolo Landazuri	6/78 6/221 8/135	7.512,97 3.914,61 <u>6.176,00</u> 17.603,58	8.874,74	6/160 (zati bat)	10.000,00	8.874,74

2. trukatzea

INTERESDUNA	EMANDAKO LURZATIAK	AZALERA, M ²	BALORAZIOA EUROTAN	JASOTAKO LURZATIAK	AZALERA, M ²	BALORAZIOA EUROTAN
Lezamako AB	7/130 7/694 (zati bat) 7/134 (zati bat)	1.664,55 9.200,10 <u>19.308,21</u> 30.172,86	26.478,87	7/135 8/140 7/649 (zati bat)	22.174,61 9.994,26 <u>25.042,37</u> 57.211,29	26.478,87
Juan Jose Aldama Ibarrola	7/135 8/140 7/649 (zati bat)	22.174,61 9.994,26 <u>25.042,37</u> 57.211,29	26.478,87	7/130 7/694 (zati bat) 7/134 (zati bat)	1.664,55 9.200,10 <u>19.308,21</u> 30.172,86	26.478,87

3. trukatzea

INTERESDUNA	EMANDAKO LURZATIAK	AZALERA, M ²	BALORAZIOA EUROTAN	JASOTAKO LURZATIAK	AZALERA, M ²	BALORAZIOA EUROTAN
Lezamako AB	7/134 (zati bat)	15.079,58	11.771,79	7/131 7/132	18.680,59 <u>10.358,31</u> 29.038,90	11.771,79
Luis Aldama Zulueta	7/131 7/132	18.680,59 <u>10.358,31</u> 29.038,90	11.771,79	7/134 (zati bat)	15.079,58	11.771,79

4. trukatzea

INTERESDUNA	EMANDAKO LURZATIAK	AZALERA, M ²	BALORAZIOA EUROTAN	JASOTAKO LURZATIAK	AZALERA, M ²	BALORAZIOA EUROTAN
Lezamako AB	5/216 (zati bat) 5/215 (zati bat)	16.733,60 <u>4.582,00</u> 21.315,60	13.037,73	8/137 6/122 5/191 5/192	1.745,40 1.179,78 14.621,86 <u>4.123,13</u> 21.670,17	13.037,73
Jose M ^a Alday Zubizarreta	8/137 6/122 5/191 5/192	1.745,40 1.179,78 14.621,86 <u>4.123,13</u> 21.670,17	13.037,73	5/216 (zati bat) 5/215 (zati bat)	16.733,60 <u>4.582,00</u> 21.315,60	13.037,73